

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Oarsoarrak

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-5-12

1	Izena	Familia bidezko euskararen transmisioa Oarsoaldean
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Familia-Haurrak-Gazteak
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	euskara@oarsoaldea.eus 943 510111
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.oarsoarrak.eus

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

- | | | |
|---|--|--|
| 1 | Praktikaren azalpena | Haurren adin tartearen arabera familiei zuzenduriko komunikazio, orientazio eta material eskaintza. 12-16 urte arteko gazteei eskainiriko aisialdi eskaintza. |
| 2 | Praktikaren azalpenaren laburpena | Gurasoei haurren adinaren araberako eskaintza sorta da eta komunikazioari eta sentiberatzeari garrantzi berezia ematen diogu. Horregatik daude komunikazio ekintzak eta bestelakoak, komunikazioak eta sentsibilizazioak hartzen dute pisurik handiena. Egiten ditugun ekintzak honako hauek dira: <ol style="list-style-type: none"> Oarsoirriak egitasmoa <ul style="list-style-type: none"> Oarsoirriak eta eskualde hezitzailea. Herrien baliabideak probestuz urteko aisialdi egitarauak osatu dira lau herrietan (Oartzunen ludoteka egitasmoaren baitan). Aurten ere eskualde hezitzailearen oinarriak (auzolana, haurren eta gazteen parte-hartzea, balio hezitzaileen bidez jardutea eta euskara erdigunean dela) landu nahi ditugu beste egitasmo batzuetara ere zabalduz eta oinarri horien bidez landutako egitasmoak saretuz. Horretarako, besteak beste, formazioa jorratuko dugu, gurasoei eta gazteekin eta hurrekin jarduten dutenei zuzenduta. Herrietako egitarauko ekintza bana eskualdeko ekintza. Hiru hilean behin, urtaro aldaketarekin bat eginez gutxi gora-behera berez herri batekoa den ekintza bat eskualdeko bihurtuko dugu gainerako herriei bertaratzeko gonbita eginez. Irrigintza jaia eskualdeko batzarrak erabakiko du hurrengo jai erraldoia noiz, non eta nola egin behar den baina udazkenean (azaroaren 20an seguruenik) Erreterian egiteko lehen urratsak |

egiten hasiak gara

- Irria aldizkariaren harpidetzak Eskualdeko ikastetxeetako 3-8 urte artekoen gela guztiek (HHko 3., 4. eta 5. mailak eta LHko 1. eta 2. mailak) Irria aldizkariaren harpidetza izaten eta, ondorioz, argitaratu ahala, aldizkariaren zenbakiak gelan izaten jarraituko dute 2016an.

2. Kuadrillategi egitasmoa

- Lagunarteetan biltzen diren gazteen hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoa da (aisialdirako eskaintza bat), bikoteak osatzen dituztenerako bikote hizkuntza euskaraz finka dezaten, besteak beste.
- 12-16 urte bitarteko lagunarteei zuzendutako egitasmoa da, hau da, DBH B eta D ereduetan ikasten ari diren gaztetxoei zuzendua. Erreterian, Lezon eta Pasaian DBHko maila guztiei eskaintzen zaie eta Oiartzunen DBH-1ekoei eta DBH-2koei.
- Pasaian eta Lezon Ttakun, KEren bidez kudeatzen da egitasmoa. Oiartzungo Udalak, berriz, Ttur-ttur euskaltzaleon bilgunearekin hitzarmena du, besteak beste, egitasmo hau kudeatzeko.
- Eskualde mailako gutxieneko koordinazio orokorrari eutsiko diogu; matrikulazioa, euskarriak, irudia, ekintza batzuk eta abar elkarrekin egiteko.
- Irailaren hasieran Kuadrillategin izena emateko epea zabalduko dugu. Batetik, ikastetxeetan egitasmoaren aurkezpenak eta matrikulazioa egingo dugu. Aurkezpen horietan izena emateko kupoia banatuko diegu.
- Oarsoaldeko KTG foroarekin jarraituko dugu 2016an.

3. Guraso erdaldunentzako euskara ikastaroak

- 0-12 urteko arteko haurrak dituzten guraso edo bikotekide erdaldunentzako euskara ikastaro bereziak eskaintzen jarraituko dugu egitasmo honetan, astean 8-10 ordu, ikasturte osoan zehar. Euskara eskola hauek askotan seme-alaben ikastetxean ematen dira hauek eskoletan diren bitartean.

4. Komunikazio plana

- Batetik, mezua gizarte osoari zabalduko zaio prentsa idatziaren bidez eta irratia bidez. Baina hartzaile nagusiak gurasoak izango dira. Gurasoei mezuak helarazteko orduan haurren adina hartuko da irizpide bereizle gisa. Mezu nagusia bera izango da Haur Hezkuntzako guraso guztientzat baina euskarriak eta bideak aldatuko dira adinaren arabera.
- Guraso euskaldunei zuzenduriko irratitarteak. Guraso euskaldunak bikote hizkuntza euskara izatearen garrantziaz jabetzeko, sentsibilizatze irratitarteak emitituko ditugu bi boladatan. Udaberrian apiril-maiatza eta udazkenean urri-azaroa. Irrati-tarteak Euskadi irratian, Radio Euskadin, Info7 irratian eta Oiartzun irratian emitituko ditugu.
- 0 urteko haurren gurasoak Haur jaioberrien gurasoei "Guraso gara" gida etxera bidaltzen zaie Oiartzunen eta Pasaian zorion gutun

batekin. Beste bi herrietan erregistroan banatzen zaie. Hizkuntza kontuetan nola jokatu, eta, erabakiak hartzerakoan, kontuan zer hartu behar duten aholkatzen zaie eta orientabideak eskaintzen zaizkie.

- Haurren hazkuntza faseak eta hizkuntza, liburuxka Haurren hazkuntza faseak edo aldiak hizkuntzarekin lotzen dituen liburuxka banatuko da. 20 orrikoa. Bi bertsio izango ditu; euskarazkoa eta ele bietakoa (40 orri). Haurren hazkuntza hilabeteka aurkezten du eta aldi bakoitzean hainbat alderditan haurrak izaten duen garapena eta bilakaera azaltzen ditu. Jaioberrien gurasoei erroldatzeko orduan edo 1 urte bete egin arte haurtzaindegietan eta haur eskoletan banatuko dira.
- Hazi-Hezi aldizkariaren banaketa Jaioberri guztien gurasoei Hazi-Hezi aldizkariaren aleak banatzen dizkiegu. Horrez gain, hala nahi duten gurasoei Hazi-Heziren urtebeteko harpidetza egingo zaie doan.
- Euskarazko produktuen katalogoa 3-16 urte arteko ikasleentzako egokiak diren euskarazko kultur produktuak jasotzen ditu katalogoak.
- Azaroan LH-1eko ikasle guztiei banatuko zaie ikastetxeen bidez, 700 ale.
- Gainerako ikasle guztiei www.katalogoa.eus webgunearen berri eta webgunera jotzeko deia egiten duen tarjeta bana helaraziko zaie ikastetxeen bidez, 7.000 ale.

3	Aurrekariak (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	90eko hamarraldiko nutrizio kanpainen gabezien eta planteamentu okerren gainean hausnarketa egin eta egungo eskaintzara iritsi gara.
4	Helburuak	Familia bidezko euskararen transmisioa areagotu. Familiei begirako lanketa egin. Batez ere bi gurasoak edo gurasogaiak euskaldunak diren familietan eragin, bikote hizkuntza eta, ondorioz, familia hizkuntza euskara izan dezaten.
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Gurasoak, haurrak eta gazteak
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	Udal euskaltegiak AEK euskaltegiak. Ttakun, Ttur-Ttur elkarteak eta Lau Haizetara kuadrillategi herrietan kudeatzen dutenak.
7	Inplementazio-epea	97an hasi ziren eskola mailan.

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	9.000 familia, gutxi gora-behera
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	25.000 € urtean eskualdetik + herrietako euskaltegiak guraso taldeen bekatzea + herrietako Oarsoirriak egitarauen kostea

10	Lortutako emaitzak	
11	Dokumentazioa erreferentziako materiala	Lkusi eta entzun DVDA, "Kontaidazu ipuin bat" ekimeneko ipuinak eta CDak, "Guraso gara" gida, "Gure haurraren garapena" hazkuntza aldien gida, Euskarazko produktuen katalogoa, Hazi-Hezi eta Irria aldizkariak, Guraso euskaldunei zuzenduriko irrati-tarteak, 2006-2016
12	Aurkezpen bideoa	www.oarsoarrak.eus
13	Intereseko informazio gehigarrik	2003-04ko hausnarketa txostena, Familia egitasmoa Oarsoaldean 2004 txostena.

